

Kalean ain arin dabiltzan gizon-emakumeak, nora doaz? zeren billa doaz? Zorionaren billa, jakiña; baiña, jakin balekie nun aurkitzen dan zorion ori...! Umm...! Bide-ertzean gauza eder larregi ixten ditue. Ikusi be eztabe ikusten-eta. Urreantzeko distadaz itsututa dabiltz Zenbatek, esate baterako, ikusten dabe **ADISKIDETASUNEAN** zorionaren iturria?

Adiskidetasuna: bipairu gizasemeen alkar-maitasuna edo, bein to pa diranen alkar-bientasuna. Gizonok, arean be, Egilleak orrelan egin da, lagunarteko izadi bat daukogu, au da, gizarterako egiñak gara eta ezelan be ezin dogu ukatu gure izadiko joera au. (Bakartasun arro ta berekorrak beste edozerrek baiño zoro geiago sortu ditu munduan). Eta adiskidetasuna besteenganako joera orren berezko ondorengoa baiño ezta. Alkar ikusi dabenen artean berez-berez sortzen dan biotz eraspenna. Zergaitik da, ostera, ain gatx benetako adiskideak idoro tea?

Begira, benetako adiskideak izateko, gizon garanez, ez daukogu zetan Jaungoikoa edo Kristau erlijijua ezagutu bearrik. Adiskidetasuna giza-berezkoa bai-da. Paganu edo Jainko-bako gizon bi be egizko adiski-deak izan daitezkez.

Baiña, bestearen adiskidea izan gura badot nik, beste ori oso-osorik artu bear dot, bera dan moduan, bere nolakotasun on eta txarra kaz, bere edertasun eta akatz guztiakaz. Auxe da lenen-lenengoa benetako adiskidetasunerako. (Ezkontza on bat egiteko be, orixe da ezkongaiak lenago bete bear dauana: senar edo emaztegaia ber-bera dan lakoa maitatutea). Bestela, laster baiño laster jausiko da adiskidetasun ori, bestearen "egia" ezagutu ondoren.

Zer gura dau esa orrek, barriz? Adiskidetasuna lortuteko, bestea benetan maite bear dogularik, gure buruagaz derrior aztu bear garala, eta gure maitetasun ortatik egoismu ta utilidade guztiak kendu bear ditugula. Beste berba batzukaz, benetako adiskidea izateko, il egin bear dogu gure burua, gure gurariak eta gogoak, gure ames eta atse-giñak edo, obeto esateko, gure ordez **bestea** ipiñi bear dogu gure bi-zitzako erdi-erdian, beste orren alde egiñik gure alde egingo geunkena.



**IX URTEA** N.º 107  
Dep. Legal SS. 1092-1959  
Suplemento de la hoja  
Anaitasuna de Guipúzcoa  
**ABENDUA** (12) 1963

# ANAITASUNA

**adiskidea,  
zorion  
bidea**



# Gazte, zure "kaidea" zer da?

Jaungoikoa dogu, gazte, gauz guztien egille. "Sinistuten dot Jaungoiko Aitarengan, zeru-lurren egillea...", esaten dogu. Jaungoikoak gauz guztiak egin dauz eta egiten dauz ondo. Bere jakituria azken bagekoa da; ez dauka neurririk. Jaungoikoak egin-dako guztia, naiz txikia izan naiz aundia, dana da ona, polita, ederra...

Baiña, Jaungoikoak egindako gauz guztietan lelengotarikoa "gizonaren izakia, gizonaren gorputz-arima" dala esango neuskizu.

Bai, gazte; Jaungoikoak egin dau zure gorputza, zure andragaiaren gorputza, zure erriko neska guztien gorputza, zure mutilagunen gorputza... Jaungoikoak ipiñi dau zure biotz gazte orretan, zuk, zure biotz orretan zure andragaiarenganako daroazun "kaidea" ta zure andragaiak bere biotzean zureganako daroan "kaidea".

Zergaitik, zertarako gizon-emakumeen artean diferentzi oneek? Nundik nora sortu izan da zure biotz orretan daroazun "Kaidea"? Pentsatu momentu batean, gazte. Momentu ori igaro ondoren, auxe esatera bear-tua aurkituko zara: "nire biotzak neskarenganako (neskia bazara mutillenganako) daroan kaideak "zeozer" esan gura dau. Zer? "Kaide" onek elburu bat, objetibu bat daroala: alkar-batasuna, EZKONTZA. Ezkontzaren sustraia ez dago Ebanjelioan ez Eleizan, ez Aita Santuaren Enzikliketan, ez; ezkontzaren sustraia gizonaren, emakumearen izakiaren barruan bertan aurkituten da.

Baiña, "kaide" ori formatu, ezi egin bear da. Kaide ori gauza ona izan arren, bere

inguruan gauza txarrak, griña txarrak beba-daroaz.

Gazteak, ezkondu baiño len, ba-dauke "arta jorra" nun egin, bai. Mundu onetan gauz guztiak euren objetibua bear dabe. "Kaide" orrek be bardin: bere objetibua bete bear dau; eta objetibu ori beteteko, kaide ori formatuteko, norberekeriaren kontra, griña txarren kontra jokatu bear da. Gai onetan, derrigorrekoa dogu, bada, formaziñua. Abereak, —esate baterako, zuen kortan dagoanak— bere "kaidea" daroa bere barruan; ez dot uste, ostera, abereen kaidea eta gizonen kaidea bardiña danik. Ez dira bardiñak —parkatu, gazte, konparaziñu au— zure kaideak eta korta basterreko aberearen kaideak! Zure kaidea, gazte, naiz mutil naiz neska izan, PERSONAREN kaidea da, ez aberearena. Baiña, kontun artu: zuk, zure biotz gazte orretan zure ezkontz-lagunarenganako daroazun Kaidea ezpadozu eziten, formatuten, —parkatu barriro, gazte, baiña egia danezkero, esan egingo deusut konfiantzan—, aberearen kaidea besterik ez da izango.

Ezkontza on bat egin baiño len, bear berrrekoa dozu, gazte, formaziñu on bat lortutea. Eta formaziñu au lortuteko —ez aztu!—, gogor jokatu bear dozula zure barruan eta...kanpuan!

Gizon-emakumeen artean dabillan alkar-kaidea Jaungoikoak ber-berak sortu dau. Alkar-kaide orren elburua "Ezkontzako Sakramentua" da. Urreratu, gazte, Sakramentu orretara; baiña, ez zeure "kaidea" formatu baiño len!... Eleizak zure biarko familia bear dau!...

## adiskidea...

Eta au ezta ez ain erreza, ain adierreza. Guztiok dakigu gure lagun urkoa maitatzen lagun orren mesedeen bearra daukogunean edo baita lagun ori sinpatiku jakunean be, ala berak gu gorensten gaitun bako-txean. Baiña, gitxik dakie ortik igaroten. Eta adiskidetasuna ori baiño askozaz gorago dago. Naiz polita ala motsa, naiz garbia ala zikiña, naiz aberatsa ala beartsua, adiskidea beti maitatu bear dot gauz guztien gaitetik. Eta ori ezin izango dot egin, billatzen ezpadot lenago gizonaren izate aldakor-eza edo bere izate trszendentala. Jaungoikoa?





## EZKONDUEN

# AMODIOA

Lenengo esan bear doguna da, ezkonduen amodioa frutuduna izan bear dauala. Bueno, beste era batera esango deutsut nai badozu: Senar-emazteak, ezin daikezuela alkar-samurtasunagaz bakarrik gelditu; zuen maitasuna objetibo barik geldituko litzakela se-merik ezpazenduke, al izanda.

Zuen ezkontz-amodioa bata bestearen laguntzarako izan bear dau. Eta laguntza onetan santutu bear zarie. Izan be, ezkontza sakramentu bat da eta sakramentu onetan eskontz-amodioa santutua izaten da.

Baleiteke zuen amodioan egoismu asko gelditzea oraindifo: niretzat —senarra bazara diñozu— ezkontza, maitasun asko erakusten deustan emazte bat eukitea da; biargiña izan dedilla batez be...; etxea ondo zaindu daijala; jatekoa ondo egin deistala, eta... al badau, lagundu deistala nire zeregiñetan be.

Eta emaztea bazara, zuretzako ezkontza ederrena izango da: senarrak samurtasun asko erakustea zuri; zure aurrean lilluraztea; diru asko irabaztea eta zure kapri-koak pagatea.

Guzti ori eztago ain txarto, baiña gauza gitxi da benetan!

Senar-emazteak, goratxoago jo bear dozue oraindifo; gauza sustraitsuago bat topaten asi bear zarie: egiazko alkar-amodioa. Ondo konprenitu bear zarie bata bestea. Lur oneko zeregiñak, batez be semeen edukazi-ña, bien artean eroan bear dozue. Erriko gizon ejenplarrak izaten alegindu bear zarie.

Emaztearen biotzak senarrarengana jo bear dau. Senarrak ataraten dauz, bai, bere amodioagaz, emaztearen biotzeko xamur-tasunak, pozak eta konprenziñoak. Senar-raren blotza da emaztearen iturria. Emen

izan bear dau emazteak bere atsedena eta loa.


Baiña senarrak be asko ikasi bear dau emaz-tearen biotzetik. Biblia santuak ederto dakar: "Triste egoan Adan bera bakarrik, Jaungoikoak bere itxurako lagun bat emon arte". Ara or senarraren emazteganako tirakada gogor bat! Emaztearen influentziak, senarraren sentimentuak edukatu eta findu egiten dauz. Emaztearen amatasun goxotik, senarrak be aitatasun goxo bat artzen dau. Ezkontzan, bata besteari daukan gauzarik onena emon bear deuto: amodioa.

Penagarritz, gaurko egunean ezkontzauste asko ikusten dira. Zergaitik? Amodiorik ez-tabelako alkarren artean. Neskalguntza denporan uste eben euren alkar-maitasuna atxa baiño be gogorragoa zala, baiña... gauzak aldatu egiten dira errealdadea ikututen dabenean. Eta aize zurrumurru onen kontrako erremedioa? Alkar-amodioa. Beste-rik ez.

Oraindifo ezkondu etzarienok espabillatu zaiteze ba. Sakondu eta esamiñatu zelakoa dan zuen alkar-amodioa. Baiña, nun jarten dozue zuen alkar-amodioa? Piper koloretan? Ezpain gorrixketan? Aiii... kontuz! Gero negarrak etorriko dira pranko. Baiña "gero" ori geroegi izango da. Koloreak eta edertasunak, urte gitxi barru, mizpildu egi-ten dira eta gero... gero kontuak! Zuen alkar-amodioa, egiazkoa eta kristau-motiboetan tinkatutakoa izan bear dau, luzarokoa izan bear badau.



# DAKAR, ARRAINTZALEEN



Andik eta emendik ikusi doguzan estadistika eta numeruetan. Senegal-eko itxasondoan, goitik-bera, atrapa dan arraiñak milla ta bederatzireun eta irurogei tonelada egiten dauz. Pasatu dan urtean, zazpi milla ta lareun batu ziran. Arraintza onetan ogetamasei ontzi bretainarrak eta ogetazazpi Frantziko Euskalerrikoak ibilli ziran 1962-ko abenduatik 1963-en akaburarte. Barruratutako atun guztia bertako fabriketan sartun zan.

**Kantau-  
riko  
euskal-  
dunak be  
"goxura"**

Joan dan moduan, ba-dator atzera negua, eta neguagaz arraiñeza eta irabazi gitxiagoa, kontuizu, Kantauri itxasoko arraintzaleentzat beintzat, larregi dira ain itxaso txiki barentzat-eta.

**Danan gaiñetik Afrika-ra.**

Entzutun zan, bai, ara, Dakar, Freetown, edo Abidjan aldera ezin zala joan sei illebeterako, emengo bokartaldia galduten zala-ta, irabazi baiño geiago galduten zala-ta; baiña bizibearrak eraginda, kontratuak alan-olan eginda, artu dabe Afrika-rako bidea gure enbarkaziñuek. Gaurko baporak mantenidu gura dauanak ez dauko beste erremediorik. Derrigorrezko dau uraundietarako bideari jarraitutea. Obeto litzake bakotxak bere uretatik ez urtetea; baiña Kantauri itxasoa ezutu egin da, ain asko dira bere lepoan dabiltzan ontziak ze...

**Arrain asko.**

Afrika-ko itxas manda au, guztiz da aberatsa atunetan. Onek bere prolemak sortu eta dakaz: nora saldu neurri onenean arraiña? Zelan eroan denpora gitxienean portura? Zelan gero ta geiago atrapa? Zelan gaindu ango gaixo ta beruak?

Dana dala  
tzun osoa em  
geiago edo gi  
Atuneri t  
jako bere ibil  
izan atun ask

**Beti itxaroten**

Askok ba  
ta ezbear bat  
negu utsak er



# OXOTEGIA"

arraintzaleak prolema orreeri eran-  
tertero lez, Afrikaratu dira. Bai, ba,  
ezta falta iñoiz arraiñik!  
dan ezkeru, ur epela gustaten  
teko, eta orregaitik aurtan eztoqu  
barik gagoz-ta.

ire ustez egundo be ezta frakasu  
ibillaldia. Beti irabazten da emen  
ama baiño geiago-ta.

Afrika-ko gauza txarrena erosle bakar bat egotea da. Beti saldu bear berari gitxi gora-bera berak gura dauan salneurrian, eta pasaten dana, danak nai bakotxan partikaria betetea.

Gaur, erosle geiago agertuko diralakoan dagoz Kantauriko arraintzaleak, baiño ikusiko dogu ia.

Gure naia ta guraria auxe baiño ezta: izan daiela su-berta on bat, euren izerdiak mereziduten dabe-ta.



---

---

## eta bakea lurrean...

Belengo Natibite elizako kanpaiak. Ia bi mille urtetan zear poza eta bakea jo ta jo deika dagoazan kanpaiak. Deika ta deika aingeruen barri arekin:

"Aintza zeruetan Jaungoikoari eta lurrean bakea borondate oneko gizoneri".

Gabonak bakea agintzen deuskue; bake-rik zabalena eta sakonena, anai arteko ba-kea.

"Bakea da izan be, bizitz eta kondairako, gizon famili eta errien ondasun guztien arteko onik bearrezkoena eta ederrena" (Juan XXIII). Bera da, ez on bat bakarrik, ontasun guztien billera egokia baiño; bera da gizadiaren jasotzeko sustrai eta aro onuratsua. "Bakea eta bake-miña, munduaren baretasuna eta onaren baitura ziurra da" (Juan XXIII). Zoriona da bakea.

Beti ibilli da gizona bake-naian. Au izan da, eta izango be bere barrenengo gogo biza. Izadi guztia armonirik beteenerantz lerrotuta, biurtuta, dago; eta gizona bere indar bizi-guztiekin.

Gaur batez be, gizon bakoitzetan, familia ta errietan eta kontzientzietan jabetu dan naste ikaragarri onetatik jeikitzen dan dea-





## *Gabon zoriontsuak opa deutsueguz irakurle guztiori*

darra "Bakea" da. Gaurko gizona aseta dago; beingo bakeari deika dago; ainbeste maite izan dauan bakea; ainbesteraifnoko sufrimentuz bein da barrero billatu eta billatutakoa.

Entzun deigun, "eskua biotz muinean ipinita, munduko barren guztietatik ume errugabe eta zar, gizon bakar eta komunitate osoen, zerurantz doian, garraisi mintsua: Bakea, bakea." Bearrezkoa dogu gaurko mundu illun onetan, bakearen alde jeikitzea, eta beste ontasan guztiak baiño obeagoa dan on au lortuteko alegiñik ez ukatzea. Ezin daikegu ez ikaratu milloika famili bildur okerpean ikusita. Gure kristianismuak luzatu bear deitso eskua mundu gaixo oneri, bere bake-mensajea entzun araziz; justizi, egi eta alkar-maitasunaren indar morala eta lenentasuna, bestelako indar guztien aurrean erakutziz. Zerren justizian, karidadean, egian eta danen dorondate onean ezarritakoa ez bada gure bakea, ez da izango ez iraunkorra ta ez egizkoa. Bakea, gizon da-

nen gogorik sakonena eta izadi guztiaren elburua, ezin leiteke oiñarritu batzuen indarrean edo gogoan, gaur bai eta biar ez diran arrazoietan; gizonaren bake-min ori alako sakonaketa iraunkorrak izan bear da be gizonen arteko bakearen sustraiak.

Kristianismua eta kristifiauak bakearen frutuak gara. Berez, gudan jaió gifian, Jaungoikoaren eta lagun-urkoaren etsai; baiña bataioaren bidez, Jaungoikoaren seme gara; Bera gure Aita eta gu danok anai: bakean, bakean!

"Au da Elizak jarraikatzan dauan bakea, otoitzagaz, beartsueri, makal eta zarreri daukan begirakunde biotztsuagaz, eta alkar-maitasun legea zabalduagaz, zergaitik gizonak anaiak dira eta —biotza ikaratuta diñogu— danak Aita bateren semeak" (Juan XXIII).

Au da gabonak dakarskuen bakea be. Aurkitu daiala lur ongarritua.



# Base- rria esko- laren bea- rrean

Gure gazteak, baserria jasotzeko preparatuta ote da-  
goz? Ezetz esan bear. Eskolan dibisiñora eldu ezkeru, laix-  
ter dira gure baserriarrak atxur kirtenari elduten. Bat  
baiño geiago izan dira liburu-tartean zoratu diranak eta  
bada ezpadan alde batera itxitzea obeto, diño.

Eta baserri kontuan zer dakie? Euren aitek dakiena,  
besterik ez. Gainduteko artegatasunik be ez; beti bardin.  
Igitaiaren gizaldian geratuteko bide ederra. Gero keja asko.  
Ori bai. Baztertuak gagozala, irabazi eskaxa daukagula, se-  
meeri bear geiegi egin arazten deutsegula, ta abar... Arri-  
tzekoa ote da au? Ez-jakintasunetik berez sortuten diran  
akatzak dira. Jakin betiko.

Baserrian diru ugari izateko, liburua ez baiña, atxu-  
rra erabilli bear da. Onela pentsatzen dabe askok. Zerga-  
tik esan bearrrik ez oker dabizala. Baserrian aurrera atera-  
tzeko, gure deretxoak gordetzeko, ondo jan ta ondo bizi-  
tzeko, baserriarrak bide eder bat daukogu: jakituri bidea.  
Ikasi, ikasi daigun bildur barik.

Gure aurrekoak biar geiegi egin eben. Izan be beti  
izan da euskalduna biargiñ ona; baiña buruagaz egin bea-  
rrean, eskuekaz ta indarragaz egiten eben. Ortxe konfun-  
didu, koitxaduak.

Guk aurrekoeri irabazi egin bear deutsegu. Atxurrak  
eta eskuak lar erabilli barik, buruari erasoko deusagu. Ez  
pentsatu txapela eroateko danik, pentsatzeko baiño. Eskola  
bearra daukogu; estudioaren bidez bakarrik jasoko gara.

Zer jakin bear dogu?

Lenengo ta ondoen kristau ikasbidea. Ez memoriz, ba-  
karrik; kristau legez pentsatu, sentitu ta ekin arte. Jakin  
gure bizitzaren zegatia, Jaungoikoak gugan euki bear dau-  
an tokia, Kristoren bizitza, karidadearen edertasuna. Bi-  
blia erabiltzen ez dakianik ez litzake baserrian iñor egon  
bear. Bera da Kristiñautasunaren sustraia emoten deus-  
kuna. Animako bizitza geiagotuten saiatu bear gara. Beste  
balio guztiak, naiz izan osasuna, naiz ondasuna, bizitz one-  
tara eroaten gaituen malla batzuk besterik ez dira. Piñu  
asko sartzea ez da bearrezkoena, ezta kaja de ahorrosen di-  
ru asko eukitzea: grazi-bizitza sasoi eukitzea baiño.

Baserri bizitzarako be ezi egin bear gara, preparaziñu  
profesional on baten bidez jasotzeko. Orretarako maitatu  
baserri bearrak, gizatasun apur bat eukitzen saiatu, jakin  
alkartasunaren indarra, egin dirua baserriagaz, aurrerape-  
nak ikusi ta sartu.

Buruagaz jokatu ezkeru, laixter daukoguz baserri in-  
dartsuak. Benetan asko egin geinke. Ezjakintasunetik da-  
tor baserriaren atzerapena. Baztertuteko, eskola bidea one-  
na. Gurasoak daukee emen naiko biar ta naiko errespon-  
sabilidade. Gazte diranari emon eskola ugari.

*eskuak barik,*

*erabilli burua*




Ezin dogu ifiolaz be ukatu bierra gogaigarria, neketsua ta gatxa dala, geientsuetan beintzat. Emon be ezin deutso poz askorik emon biergiñeri beti gauza baten gañean egoteak eta egunero ta egunero, urtero ta urtero, bier bardin-bardiñean ekitera joan bearrak.

Ia, bierrera! esan eutson bere aitak amalau urte bete-barri zalarik. Eta bierrera, joan bear... Beste orrenbeste esan eutson onek bere semeari. Ta semeak beste orrenbeste egin bearra auki eban. Eta kondena onek —alan deitzen deutse biergiñak eurak bierrari— asko kanbiatu barik segidu bear-ko dau, gizaldiak zear, kondiziño ori obea-

ñoa, "kristiñauentzat Jainkoarenganako serbitzio bat" baiño (Pio XII-garrenak).

Len iñoiz bierra esklabo, menpeko ta olakoen arazoa bakarrik zala uste zan. Eta Elizari esker ezala olan ikustera doa mundua. Egia esan, oraindik orain asko dira biergiñeri begiratzen deutesnak jende baju ta errukigarri begiratzen jaken moduan. Zoritxarrez, kristiñau askok be bai. Obe litzake Elizarentzat, bai, onek kristiñauok ez-paleuke kristiñau izenik. Baña Jainkoari eskerrak geroago ta urriago doaz.

Ez, bierra ez da esklaboena. Bierra gizon guztien arazoa da, denpora dala Pio XI-garrenak bere "Quadragesimo Anno" enzikli-



# Bierra, madari- kaziño?

gotutzeko itxaropenik eztalako ifundik be agertzen. Orregaitik, ain zuzen, madarikaziño balitz lez dauke bierra. Ez ori bakarrik, ordea. Txarrena da beren buruak be madarikatutzat joten dabezela. Zergaitik? Zeren malla sozial ortan jaio diralako, ta, jakiña, bierraren buztarpean bizitzeko. Izan be buztarri ori izan daitekenetatik gogor ta garratzenetarikoa dala dudarik eztago. Ba-dakigu, bai. Ta Elizak ba-daki zein gogor ta garratza dan ori, ta orregaitik artu dau bere gainean —gaur iñoiz baño sendoago ta arduratsuago— bere indarren neurrian, biergiñaren kondizioa obeagotutea. Elizak diñosku bierra ez jakula madarikazi-

kan esan ebanez, egaztiari egaz egiten egi-ki jako lez jakulako guri geuri be bier egi-tea. Ganera, kristiñau garanez, eskatuten jaku fede begiekaz bierra ikustea. Beraz ezin dogu iñoiz bierra madarikaziñotzat ta kondenaizat euki. Ba-diñosku —ta ondo esan be— Joan XXIII-garrenak bere "Mater et Magistra" enziklikan zelan begiratu bear dogun bierra. Ara: "Bierra, egin-bear baten betetze ta serbitzio baten prestaziño lez euki ta bizi egin bear da". Au da: obligaziño danez zintzo ta konzientziz bete egin bear dogu; ta serbitzio dan ezkerer pozik ta bicitzez. Iñoiz be ez, Jainkoaren amorioarren, madarikaziño ta kondena bailitzan.